



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2012/2013 ikasturtea

AUTISMOA LITERATURAN

Autismoari zuzendutako materialen egokitzapena: ipuina

Egilea: Sarai De Juan Roca

Zuzendaria: Jon Batti Kortazar Uriarte

Leioan, 2014ko ekainaren 10n

© 2014, Sarai De Juan

A U R K I B I D E A

Sarrera	4
1. Helburuak	5
2. Marko teorikoa	5
2.1. Autismoaren deskribapenaren jatorria	5
2.2. Zer da autismoa	6
2.3. Autismoaren ezaugarriak	7
2.4. Prebalentzia	11
2.5. Autismoa hezkuntza inklusiboan	12
2.5.1. Zergatik hezkuntza inklusiboa, zer da eta printzipioak	12
2.5.2. Eskolaren erantzuna. Irakaslearen papera eta plan indibiduala	13
2.6. Komunikaziorako ordezeko sistemak	15
3. Metodologia	16
3.1. Egokitzapenaren garrantzia	17
3.2. Komunikaziorako ordezeko sistema egokiaren aukeraketa	17
3.2.1. Zergatik SPC-a?	17
3.2.2. SPC-aren ezaugarriak	18
3.3. Testua idaztean jarraitu behar diren aholkuak	18
4. Emaidzak eta ondorioak	21
4.1. Emaidzak	21
4.2. Ondorioak	24
5. Bibliografia	25
6. Eranskinak	28
1. Eranskina: ipuina	29

AUTISMOA LITERATURAN

Autismoari zuzendutako materialen egokitzapena: ipuina

Sarai De Juan Roca

UPV/EHU

Lan hau nik asmatuiko ipuin baten egokitzapenean oinarritzen da, eta horretarako erabili ditudan materialen ezberdinen deskribapena egiten dut. Lan hau egin dut autismoa daukaten hurrek besteak bezalakoak direlako eta eskubide berdinak dituztelako. Beraz, irakasleak jakitea zein izan behar den autismoa daukaten hurrei eman behar dien erantzun egokia garrantzitsua da, batez ere, hurren ulermena eta komunikazioa hobetzeko. Ondorioz, gainontzeko hurrekin erlazionatzeko eta autonomoagoak izateko aukera izango dute.

Oso garrantzitsua da gogoratzea haur bakoitza ezberdina dela, eta edozein egokitzapena egiterako orduan, bakoitzaren ezaugarriak, beharrak eta gaitasunak hartu behar dira kontutan.

Autismoa. Hezkuntza inklusiboa. Komunikaziorako ordezkoko sistemak. Egokitzapena. SPC. Irakurketa erraza.

Este trabajo se basa en la adaptación de un cuento inventado por mí, en el cual también hago la descripción de los materiales que he usado para ello. He hecho este trabajo por que los niños con autismo son iguales que el resto y por que tienen los mismos derechos que los demás. Por ello, es importante que el profesor sepa cuál es la respuesta adecuada que hay que dar a los niños con autismo, sobre todo para mejorar la comunicación y la comprensión de los niños. Por consiguiente, tendrán la oportunidad de relacionarse con el resto de los niños y de ser más autónomos.

Es muy importante recordar que cada niño es diferente, por ello a la hora de hacer cualquier tipo de adaptación hay que tener en cuenta las características, las necesidades y las capacidades de cada niño.

Autismo. Educación inclusiva. Sistemas alternativos de comunión. Adaptación. SPC. Lectura fácil.

This work is based on the adaptation of one tale invented by me, in which I also describe the materials used for it. I have done this work because children with autism are equal to the rest and they have the same rights as the rest. This is why it is important that the teacher knows which is the correct answer to give to the children with autism, especially to improve their communication and comprehension. Therefore, they will have the opportunity to connect with the rest of the children and be more self-sufficient.

It is very important to remember that every single child is different, so when you are doing any type of adaptation, you have to keep in mind the characteristics, necessities and the capacities of every single child.

Autism. Inclusive education. Communication alternative systems. Adaptation. SPC. Easy reading.

SARRERA

Autismoaz hitz egiten denean, estrategia metodologiko berritzaileen eta beharrei erantzuna ematen duten baliabide materialen sorkuntzaren erabilera kontuan izan behar da.

Baliabide materialek haurra eta curriculum-aren arteko bitartekari funtzioa daukate, eta irakasleentzat finkatutako helburuen lorpena errazteko eta laguntzeko baliogarriak dira.

Lana honetako helbururik nagusia baliabide material hauek autismorako egokitzeko dauden komunikaziorako ordezeko sistema ezberdinak ezagutzea da. Helburu honek garrantzia handia dauka zeren eta, irakasle batek bere gelan autismoa daukan haur bat izan dezake eta ume honi behar duen erantzuna eman behar baitio haren komunikazioa eta ulermena errazteko eta hobetzeko asmoz. Eta are gehiago, haurraren komunikazioa eta ulermena hobetzeak ikaskideekiko inklusioa dakar.

Esan beharra dago, egokitzapen egokia egiteko, eman beharreko lehenengo pausoa autismoa zer den eta zein ezaugarri dituen jakitea ezinbestekoa dela. Jarraian, egokitzapena egiteko dauden baliabide ezberdinak ezagutu behar dira egokitzapen horretarako egokiena dena aukeratzeko.

Beraz, esandakoa kontuan izanda, lan honetan nik asmatutako ipuin bat egokitzea erabaki dut. Egokitzapen hau egiteko, lanean ikusi daitekeen moduan, bi gauza izan ditut kontuan. Alde batetik, testua idaztean jarraitu behar diren aholkuak kontuan izan ditut haurraren ulermena eta irakurketa errazteko. Eta hau, batez ere, kontuan hartu dut istorioa idazterako orduan. Bestetik, komunikaziorako ordezeko sistema ezberdinak aztertu ditut, ondoren, proposena aukeratzeko, kasu honetan SPC-a. Sistema hau erabiltzea aukeratu dut, batez ere, duen sinpletasunagatik eta hitzak koloreekin bereizten dituztenez oso bisuala gertatzen delako haurrentzat.

Bukatu baino lehen, gehitu nahi dut egindako egokitzapena orokorra dela, hau da, egokitzapena egiteko autismoa orokorrean dituen ezaugarrietan oinarritu naiz eta ez kasu zehatz batean. Beraz, kasu zehatz bati egokitzapena egiteko, autismoak dituen ezaugarri orokorrak kontuan izan arren, haur zehatz horren ezaugarriak ere kontutan hartu behar baitira. Hau garrantzitsua da kontutan izatea haur bakoitza ezberdina delako, ezaugarri, gaitasun eta behar ezberdinak izanik.

Baina ezin da ahaztu, autismoa daukaten hurrek besteak bezalakoak direla eta eskubide berdinak dituztela. Haiek gainontzeko hurrak bezala, gauza asko egiteko kapazak dira gauza berriak ulertzeko arazoak izan arren. Eta horregatik, informazioa oso argia eta ulertzeko erresa izatea ezinbestekoa da.

1. HELBURUAK

Lan honen helburuak hurrengoak dira:

- Autismoa zer den ezagutzea lan honetarako funtsezkoa da, batez ere lan hau autismorantz zuzenduta dagoelako.
- Autismoaren oinarriko ezaugarriak aztertzea ezinbestekoa da benetan autismoa zer den jakiteko.
- Hezkuntza inklusiboa zer den ezagutzea nahitaezkoa da, autismoa daukan haur bat bai gelan bai eskolan inkluitu nahi bada.
- Hezkuntza inklusiboaren printzipioak bereiztea garrantzitsua da hezkuntza inklusiboa benetan zertan datzan jakiteko, eta baita ere autismoa daukan haur batekin zelako irizpideak jarraitu behar diren jakiteko.
- Autismoari eskolan eman behar zaion erantzuna ezagutzea oinarrikoena da, ezinbestekoa da jakitea autismoa daukan haur baten aurrean irakasle batek zelako papera bete behar duen bai bere gelan bai haren ikaskideen artean haur hori inkluitzeko.
- Autismoari zuzenduta dauden materialak egokitzeko dauden baliabide ezberdinak ezagutzea (SAC) oso inportantea da, haur horren komunikazioa eta ulermena errazteko eta hobetzeko asmoz.
- Autismoari zuzendutako ipuin baten egokitzapena nola egiten den aztertzea garrantzitsua da, zeren eta irakasle moduan zure gelan autismoa daukan haur bat egon daiteke, eta berak erabili dezakeen materialak sortzen jakitea ezinbestekoa baita.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Autismoaren deskribapenaren jatorria

Uta Frith-ek (1991) esaten duen moduan, autismoaren gaia landu nahi duen edonork, egin beharreko lehenengo gauza aitzindariari buruz hitz egitea da, Leo Kanner eta Hans Asperger. Leo Kanner (Estatu Batuetako haurrentzako psikiatra) eta Hans

Asperger (Alemaniako pediatria) trastorno honi buruzko deskribapenak argitaratzen lehenak izan ziren. Kanner-ren argitalpena 1943 izan zen, eta Asperger-rena berriz, 1944an. Bai bata bai bestea, kasu batzuen xehetasunez egindako deskribapenak zeuzkaten eta alterazioa azaltzeko lehenengo esfortzu teorikoak aurkezten zituzten.

Leo Kanner-rek (1943), honela definitu zuen autismoa: oinarrizko eta nabarmenena den nahastea, haurrak pertsonekin eta bere bizitzaren hasieratik eman ahal diren egoerekin, era arruntean harremanetan jartzeko taketasunean datza.

Biak “autista” hitza aukeratu zuten trastorno honen natura besteetatik bereizteko, baina hitz honek Eugen Bleuler psikiatrak sarrarazi zuen lehenago 1911an eskizofrenia oinarrizko desorekari buruz hitz egiteko. Honek, pertsonen arteko erlazioen mugaketan eta kanpoko munduaren arteko erlazioen arteko mugaketan datza. Mugaketa hau gizartetik atzera-egitea izan daiteke, bere baitan murgiltzeko. Azalpen honetatik “autista” eta “autismo” hitzak sortzen dira, zeren eta *autos* greko terminotik baitator, eta honek “bere baitan” esan nahi du (Frith, 1991).

2.2. Zer da autismoa

Gaur egun, Paloma Cuadrado eta Sara Valientek idatzitako liburuan azaltzen duten moduan, autismoaren kontzeptua aldatu egin da, eta autismoaren espektruaren nahasteari egiten dio erreferentzia. Lorna Wing (1998) eta Marta Sara Maia; Leire Darreche Urrutxi eta Zuriñe Gaintza Jauregi (2012) azaltzen duten moduan, autismoaren espektruaren nahasteak garapenaren desgaitasun iraunkorrak dira eta horrek esan nahi du, besteak beste, autismoa duten pertsonak mundua ulertzen duten modua orokorrean ezberdina dela, autismoa bizitza osorako izango dela azpimarratuz. Ideia honi, Marta Sara Maia; Leire Darreche Urrutxi eta Zuriñe Gaintza Jauregi (2012), autismoa duten pertsonak gaixo ez daudela gehitzen diote. Autismoaren nahasteak, funtzionatzeko era desberdin bat eragiten du, baina autismoa dutenek ez dute minik sentitzen, berez autismoa nahaste bat da, eta ez gaixotasun askotan pentsatzen den bezala.

Azken ideia hau *Autismo y necesidades educativas especiales* (1992) gidan errepikatzen da. Gida honetan azaltzen da autismoa gaixotasuna ez dela sindromea baizik. Hau da, sintoma eta zeinu multzo bat da, zeinek bereizten duten daukatenen eta ez daukatenen artean. Autismoa sindrome moduan ulertzen da kausa ugari zehaztu dezaketelako.

Gaur egun autismoaren zergatia biologikoa dela argi dago eta ildo horretan oinarritzen diren ikerkuntzak nabarmentzen ari dira: genetikoak, kalte zerebrala, infekzio birikoak, ... beraz, gaur egun, “ama hozkailuaren” argudioa guztiz baztertuta dago. Hau da , garai batean, Leo Kanner esan zuen moduan, autismoa nahaste emozionala bezala jotzen zen eta horren sorrera amaren jokabide hotza seme alabekiko zen. Teoria honek, errudun sentimenduak sortarazten zituen ama horien artean (Frith, 1991; S. Maia, D. Urrutxi eta G. Jauregi 2012; *Autismo y necesidades educativas especiales* 1992).

2.3. Autismoaren ezaugarriak

Holtz, K. D.; Ziegert, A. K.; Baker C. D. (2004) esan zuten moduan, autismoaren sintomak arriskuan jartzen ditu garapenaren oinarritzkoenak diren hiru area, eta hauek, haurraren gaitasunean eragina dute:

- Elkarrenganako diren giza interakzioetan besteekin parte hartzea (elkarrenganako interakzioak).
- Besteekin komunikatzea bere garapen mailarako egokiak diren moduetan (komunikazioa).
- Haurraren garapenean ugariak diren ekintza eta jokaera ugarietan parte hartzea, adinarekin eta etaparekin bat datozenak (jolas sinbolikoa).

Hiru kategoria hauek aldi berean autismoaren oinarritzko ezaugarriak dira, hala nola, elkarrenganako interakzioak, komunikazioa eta jolas sinbolikoa, eta Lorna Wing-ek (1998) *la triada de necesidades* deitu zien.

- Urritasuna elkarrenganako interakzioetan:

Hainbat eratan azaltzen dira haien arteko bereizketa oso argia izan ez arren:

- Talde bakartuta:

Mota hau da, ziur asko, haur txikietan gehien ematen den urritasun soziala. Kasu batzuetan bizitza osorako da, beste batzuetan aldiz, aldatzen doa handitzen joaten diren neurrian.

Sozialki isolatuak daudenek, besteak existituko ez balira bezala portatzen dira. Deitzen dituzunean ez dira zuregana hurbiltzen, hitz egiten badituzu ez

dizute erantzuten, haien aurpegiak ez dira bat ere adierazgarriak. Batzuetan begirada azkarra bota ahal dizute, ukitzen badituzu kendu ahal dira, ez zaituzte besoekin inguratzen besarkatzen dituzunean eta zure albotik pasa ditzakete haien ibilaldia gelditu gabe.

Ez dute inolako interesik edo sentimendurik azaltzen zuk triste edo sufritzen bazaude. Baztertuta daudela dirudite, haien munduan, erabat murgilduta helbururik gabeko berezko ekintzetan. Dena den, gehienak borroka-jolasei erantzuten dute. Barre egin dezakete edo plazera azaldu dezakete kili-kiliak egiten zaienean, kulunkatu egiten zaienean, lurretik botata daudenean edo jarraitzen zaienean. Begietara begiratu ahal dizute esateko ekintza horrekin jarraitu nahi dutela. Egoera hauetan hurrek gizartekoia eta zoriontsu daudela dirudite, baina jolasa bukatzen den momentuan, berriro bakartzen dira.

Talde bakarturiko nahaste autistak dituzten hurrek haien ikaskideenganako axolagabetasuna sentitzen dute, edo haien aurrean ikaritzen dira. Bakartuak izaten jarraitzen duten helduek haien inguruan dagoen jendearenganako interes eza daukate.

- Talde pasiboa:

Talde honen barruan dauden haurrak eta helduak besteengana era aktiboan hurbiltzen dira, batez ere haien zaintzaileengana. Hurbilketa hau gertatzen da era berezi batean, noranzko bakarrean, hau da, zerbait eskatzeko edo interesatzen zaien zerbaitekin behin eta berriz jarraitzeko. Zuzentzen diren pertsonen beharretara edo sentimenduetara ez dute arretarik jartzen. Batzuk kontaktu okular pobrea daukate, baina zarritan, begirada oso bizia eta denbora luzean ezartzen dute besteekin hitz egiten dutenean. Haien hurbilketak beste pertsona heltzean edo besarkatzean datza, ia beti indar handiz. Zailak eta agresiboak bihurtu ahal dira behar duten atenzioa ematen ez zaienean.

- Talde oso formalak, pedanteak:

Jokabide-eredu hau aurkezten da nerabezaroaren bukaeran. Gai direnen eta hizkuntza maila ona daukaten helduetan garatzen da. Haien portaeran ongi hezitak eta oso formalak dira. Haien gogo guztiakin ondo portatzen saiatzen dira eta integrazio sozialean dauden arauetan oinarritzen dira, baina egia esanda, ez dituzte ulertzen. Honen ondorioz, akatsak egin ahal dituzte.

- Urritasuna komunikazioan:

Nahaste autista daukaten haur eta heldu guztiek komunikazioa arazoak dituzte. Haien hizkuntza eskasa edo ez izan daiteke, arazoa garatu duten edozein hizkuntzaren erabileraren moduan dago.

- Mintzamenaren erabilera:

Hizkuntzaren garapenean atzerapenak eta anomaliak egotea oso normala da. Haurren larritasunaren arabera, zailtasunak aldatzen dira. Ume batzuek ez dute inoiz hitz egingo, eta horietako batzuk soinu mekanikoak edo animalien soinuak emititzeko kapazak izaten dira.

Gainerakoek hizkuntza garatzen dute, dena den, askok nahiko berandu. Askotan, beste pertsonaren bat ahoskaturiko hitzak errepikatuz hasten dira, batez ere esaldi baten azkeneko hitza edo bi hitzak. Hitz egiten duenaren azentua eta intonazioa kopiatu dezakete. Hitzen errepikapena haurrentzat zentzu gutxi izan dezake, eta oihartzun huts honi, loro bat bezala, ekolalia deitzen zaio. Haur batzuk iraganean entzundako hitzak edo esaldiak errepikatzeko gai dira, honi ekolalia atzeratua deritzo.

Beste sein batzuek, oihartzuneko hizkuntza ez dute inoiz gainditzen, baina beste batzuek hurrengo etapara salto egiten dute, zeinean haiek eraikitako esaldiak eta hitzak esaten duten, gramatikan eta hitzen esanahietan akatsak egin arren.

Zenbaitek esandako anomaliak mantentzen dituzte helduak izanda, beste batzuek hobetzen dute eta beste zenbaitek, gramatika ona eta hiztegi zabala garatzen dute.

Hitz egiteko kapazak diren haur eta heldu hauen hizkuntzaren edukia oso errepikakorra da eta ez konbentzionala. Galdera berdinak behin eta berriz planteatzeko kapazak dira erantzunak kontutan hartu gabe, edota bakarrizketa bat hasi haren interesetatik abiatuta dagoena. Heldu batzuek onartu dute elkarrizketa hau sozialki onartezina dela eta saiatzen dira ez egiten baina, gutxieneko aukera ematen bazaie, ezin diote aurre egin haien gaia gustukoenetara bueltatzera.

- Mintzamenaren ulermena:

Ulermenaren maila alda daiteke mintzamenaren erabileraren arabera. Zenbait ume eta heldu ez dute ulertzen ahozko hizkuntza, eta hitz egiten zaienean ez dute erantzuten.

Gehienek nolabaiteko ulermena daukate, baina jakitea zein punturaino dagoen hitzen ulermena edo egoerari esker ondorioztatzen duen zaila izan daiteke.

Nahaste autista daukaten pertsonen ezaugarririk oinarrizkoenatarikoa, alde batera utzita hark daukan hizkuntza maila, interpretazio literala da. Honen ondorioz, hitzeko txantxetara txarto erantzuten dute, hitzeko anbiguotasunetan oinarritzen diren txisteak ez dituzte ulertzen, txisteak kontatzen saiatzen dira jakin ez arren grazia non dagoen edota sentzurik gabeko txisteak asmatu ditzakete.

- Ahotsaren intonazioa eta kontrola:

Nahaste autista daukaten pertsona gehienek intonazio arraroa daukate, eta honen ondorioz, haien ahoskera monotonoa izan daiteke edo inflexio desegokiaz beterik egon daiteke. Hau kontuan izanda, mintzamenaren bolumena kontrolatzeko arazoak dituzte, zeina oso baxua edo oso altua izan daitekeena. Ahotsaren kalitatea arraroa izan daiteke, mekanikoa, robota izango balira bezala. Zailtasun hauek, batez ere, nabaritzen dira berezko mintzamenean oihartzuneko mintzamenean baino, dena den, adinarekin hobetu ditzakete.

- Komunikazio ez-berbalaren erabilera eta ulermena:

Normalean, pertsonak, mintzamenaz gain, haien artean era askotan komunikatzeko gai dira. Adibidez, elkarrizketak laguntzeko keinuak, aurpegi-adierazpenak eta gorputz mugimenduak erabiltzen dituzte. Baina, nahaste autista daukaten haurrek eta helduek ezinezkoa dute komunikatzeko metodo alternatibo hauen erabilera.

Mintzamina garatu baino lehen, gehienek, haien beharrak adierazten dute norbait eskutik heltzen eta nahi duten objektuan eskua kokatuz. Urteak pasa ditzakete haurrak seinalatzen hasten diren arte, baina normalean atzamarra erabili beharrean eskua erabiltzen dute.

Haur gehienek keinu errazak garatzen dituzte, hala nola, bai edo ez adierazteko, burua gora eta behera mugitzea edota eskuin-ezkerrera. Helduak izan arte, normalean, keinu hauek baino zailagoak direnak ez dituzte garatzen.

Behin helduak izanda, hitz egiten duten bitartean besoak mugitzeko kapazak dira, baina normalean mugimendu horiek elkarrizketarekin bat ez datoz.

Nahaste autista daukaten haurrek, zailtasunak dituzte komunikazio ezberbala bai ulertzeko bai erabiltzeko. Dena den, denbora pasa ahala, egoera hau hobetu dezake.

- Irudimenaren urritasuna:

Nahaste autista daukaten haurrek, imitaziozko jolasak eta imitaziozko ekintzak ez dituzte garatzen beste haurrak bezala, are gehiago, batzuk ez dute inoiz imitaziozko jolasik garatzen.

Kapazagoak diren haurrak, imajinazioa garatuta izango balute bezala jolasten dutela dirudi, baina behaketaren ondorioz, ikusten da nola sekuentzia bera errepikatzen ari diren behin eta berriz.

Normalean, ez dute nahi beste haurrak haien jolasetan parte hartzea, baina parte hartzeko baimena ematen dietenean, haien ekintza errepikakorretan soilik parte hartzeko da. Alderantzizko egoerak ere ematen dira, hau da, haiek ez dute beste haurren irudimenezko jolasetan parte hartzen, baina parte hartu nahi dutenean ez dakite nola egin.

Gehienei telebista ikustea eta ipuinak entzutea gustatzen zaie, baina irudimenezko ulermena izan ez arren, atal osoak hitzez hitz errepikatzeko gai dira, eta atal horietan aldaketaren bat egotekotan berehala konturatzen dira.

Idazle honek, *el autismo en niños y adultos* liburuan esaten duen moduan, nahiz eta autismoaren espektruan kokatzen diren pertsonak ezaugarri amankomun batzuk izan, pertsonen hitz egiten ari garen neurrian, bi pertsona berdina ez daudela onartu behar da. Gainera, zailtasunak eta gaitasunak alda daitezke denboraren zehar. Ezaugarri amankomun batzuk autismoaren espektruaren nahasteekin lotuta daude, baina informazio hau bakoitzaren interesekin, abilidadekin eta izaerarekin nahastu behar da.

2.4. Prebalentzia

Nahaste honek, 10.000 jaio berrietatik 4 edo 5 haur mutilengan eragina dauka, baina diagnostikatzeko irizpideak hobetzen ari direnez, zifra hauek handitzen ari dira.

Mutiletan nesketan baino gehiago ematen den nahaste bat da, gorabeherako proportzioa emakume bakoitzeko 4 gizonetakoa da. Dena den, Lorna Wing-ren hitzetan, nahaste autistak emakumeetan gizonetan baino gutxiagotan eman arren, emakumeari

kalte egiten dionean, mutilak baino minusbaliagotuagoak egotea gerta daiteke. Nahaste autistaren hainbat aspektu bezala, ezberdintasun sexualen arrazoiak ezezagunak dira.

Gertakari hau era berdinean gertatzen da era guztietako nazioetan, talde etnikoetan eta maila sozialetan (Cuadrado eta Valiente, 2005).

2.5. Autismoa hezkuntza inklusiboan

2.5.1. Zergatik hezkuntza inklusiboa, zer da eta printzipioak

Inklusioa sortzen da hezkuntza sisteman dagoen eskusioari, bereizketari eta desberdintasunari aurre egiteko. Honekin batera, inklusioak exijitzen du hezkuntzaren adaptazioa ikasle guztien premia berezietara, hala nola, ikaslearen jatorria, kultura eta egoera indibiduala. Arnaiz-en ustetan (1996), Hezkuntza Orokorrak esaten du ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza jaso behar dutela haien premia indibidualetan zentratu. Arnaiz-ek esandakoarekin, Stainback, Stainback eta Moravec (1999) ados daude, eta esaten dute, hezkuntza inklusiboak jarraitzen duela klase bateko kideen desberdintasunak haien ezaugarrietara moldatutako heziketa bat jaso ahal dutela, guztientzako ikaskuntza posibilitateak handitzen diren heinean.

Hezkuntza inklusiboak bilatzen du pertsona guztiak kalitatezko hezkuntza batera sarbidea izatea, zeren eta hezkuntza inklusiboa berdintasunezko eta justuagoa den gizarte baten oinarria baita. Hezkuntza inklusiboak nabarmendu egiten du jokatzeko beste modu batzuetara aurreratzearen beharra (Arnaiz, 1997).

Azalpen hau eman eta gero, hezkuntza inklusiboari buruz aurkitu daitezkeen hainbat definizio aurkeztuko ditut:

- Hezkuntza inklusiboa komunitatea sortzen duen pertsona guztien balorazioa eginez aniztasunari erantzuna ematean, ideia berrien irekitasunean eta desberdintasunaren kontsiderazioa era duinean datza (Arnaiz, 2000).
- Bizitzeko era hobea da. Inklusioak zehazten du non bizitzen garen, non jasotzen dugun hezkuntza, non egiten dugun lan eta non jolasten dugun. Gure bihotzaren eta baloreen aldaketekin zer ikusia dauka (Pearpoint y Forest, 1999).

Hezkuntza inklusiboa, beraz, hezkuntza sisteman edozein ikasleren ikaskuntza arazoei erantzuna emateko saiakera da. Are gehiago, desgaitasunaren bat daukan ikasleen eskubideak gainontzeko ikasleen eskubideak berdinak izateko bermatzen du. Amin Maaluf-ek (2010) esan zuen moduan, aniztasuna ez da bedeinkapena ez madarikazioa, errealitatea baizik; eta inportanteena da jakitea guztiok elkarrekin nola bizi, nola bihurtu gure aniztasuna probetxuzko aniztasunean eta ez kalamidade.

Esandako guztia aurrera joan ahal izateko, McLaughkin-ek esaten duen moduan (2005), hezkuntza inklusiboa hainbat printzipioetan oinarritzen da:

- Instrukzioak eta curriculum-a ezin dira zorrotzak izan eta ezin dira egon talde oso batentzat bideratuta. Eskola bakoitzak baloratu beharko du ikasle bakoitzak behar duena eta behar horietan pentsatuz behar diren aldaketak egin.
- Ezin da bideratuta egon ikasleak ezin duenera egin, baizik eta behar duenera eta egin ahal duenera beharrezkoa den laguntzarekin eta aldaketekin.
- Premia bereziak dituzten hurrek gainontzeko hurrekin egon beharko dira klasean, denok batera, bereizketak egin gabe.
- Eskolako profesional guztiak elkarlanean egongo dira familiekin, bai desgaitasunak dituzten hurren gurasoekin bai gainontzeko hurren gurasoekin.
- Hezitu esan nahi du ikasleak prestatzea komunitatean parte hartzeko era aktiboan eta osotasunean. Hezitu esan nahi du gaitasun fisikoak garatzea eta lagunartekotasuna eta erlazioa sozial positiboak bultzatzea.

2.5.2. Eskolaren erantzuna. Irakaslearen papera eta plana indibiduala

Autismoa daukaten pertsonen ezaugarriak kontuan izatea oso garrantzitsua da, batez ere irakasleak eskolan detektatu ahal izateko. Ondorioz, esan dezakegu eskolako papera oso garrantzitsua dela, eta autismoa era goiztiar batean detektatzea onuragarria

izango dela haurren garapenerako, hain zuzen ere, haur hezkuntzan. Hau gerta dadin, alde batetik, garrantzizkoa da jakitea irakasleek prestatuta dauden ezaugarri hauei aurre egiteko (Flecha, 2004). Bestetik, aipatzekoa da irakaslearen betebeharrak zeintzuk diren, eta Arró, M.; Bel, M^a. C.; eta beste batzuen arabera hurrengoak dira:

- Premia bereziak dituzten hurrek egiten duten esfortzua kontuan izaten du, erritmo ezberdinak errespetatzen ditu eta aldizkako baliabideak bilatzen ditu.
- Konpromiso handiagoa dauka beste irakasleekin arazoak elkarrekin konpontzeko.
- Klaseko eta ikastetxearen baliabideak berrikusten ditu errealitate aldakor bati erantzuteko.
- Familiak sartzen ditu ikaslea laguntzeko haren hezkuntzan.
- Klaseko dinamika ondo joateko beharrezkoak diren arauak ikasleekin adosten ditu.

Honekin batera, irakasleak esku-hartzea egiterako orduan egokiak izango diren estrategiak ezagutzea nahitaezkoa izango zaio, eta esku-hartzeak dituen bi helburuak betetzen saiatuko da (Hortal, C.; Bravo, A.; Mitjá, S.; Soler, J.M., 2011) :

- Ongizate emozionala hobetu.
- Beharrezkoak diren gaitasun sozialak, pertsonalak eta egokituak bermatu.

Esku-hartzea ikaslearen konpresio mekanismoetan oinarritu behar da, haren ekintzetan eta haren inguruarekiko duen jarreran. Haurrarekin erlazio on bat sortu behar da, kontuan izanik haren puntu gogorak eta zailtasunak, eta haren interesetatik habiatuz, komunikatzeko eta planifikatzeko gaitasuna landu zehazki.

Ainscow-ek (2001) esan zuen sortzen diren zailtasunak guztiontzako ikasketak bezala kontsideratu ahal direla, lankidetzaren giro batean. Horregatik, Hortal, C.; Bravo, A.; eta beste batzuen arabera (2011), ikasgelan izango da non emango den ikaste-irakaste prozesua, komunikazioa erlazio bat, interakzioa helduekin eta haren ikaskideekin. Ikasgela ikaslearen ezaugarrietara kokatuko da, beti kontuan izaten autismoa daukaten haurrak. Ikasgelan haur hauek ulertzen duten klima bat sortu behar

da, erlazioa errazten duena, haien erritmoa errespetatzen duena eta haren ulermena errazten duten jarduera oso egituratuak egin behar dira.

Ikusi dugun moduan, autismoa daukaten haurrek behar izango dituzte eskolako eta ikasgelako adaptazioak, baina kasu batzuetan hori ez da nahikoa, kasu batzuetan hezkuntza inklusiboaren printzipioak esaten duten moduan, plan indibidualaren beharra daukate. Autismoa duen haur batentzako plan indibiduala egiterakoan kontuan izan behar da (Hortal, C.; Bravo, A.; Mitjá, S.; Soler, J.M., 2011):

- Curriculumeko area ezberdinetan haurrak dituen konpetentziak eta gaitasunen garapenaren maila, batez ere ondorioak izan dituztenetan, hala nola, komunikazioa, erlazioa eta pentsamendua. Area ezberdinetan lehenetsuna izan dituzten helburuak eta konpetentziak zehaztuko dira.
- Beharrezkoak diren laguntzak eta interbenzio zehatzak, eta ikasgelan egingo diren adaptazioak.
- Aldizkako balorazioaren planifikazioa eta ikasleen prozesuaren erregistroa.
- Familiaren jarraipena.
- Beste zerbitzuekiko kolaborazioa.

2.6. Komunikaziorako ordezeko sistemak

ARASAAC web orrialdean agertzen den moduan, komunikaziorako ordezeko sistemak komunikaziorako sistemak ez-berbalak dira, zeinak ahozko hizkuntza sustatzeko, osatzeko edo ordezkatzeko balio duten. Sistema hauek argazkiak, marrazkiak, piktogramak, hitzak edo hizkiak erabiltzen dituzte.

Komunikazioa eta hizkuntza pertsona guztiontzat ezinbestekoak dira, besteekin erlazionatzeko, ikasteko, ondo pasatzeko eta gizartean parte hartzeko. Gaur egun, sistema hauei esker, ahozko hizkuntzan arazoak izatea ez lirateke traba bat izan behar.

Lorna Wing (1998)-nek bere “triada de necesidades”-en azaldu zuen moduan, nahaste autista daukaten pertsonak ikus-memoria oso ona daukate, eta horrek ikus-kodeetan oinarriturik dagoen ikaskuntza errazten du, hezkuntza eta gizarte programetan osagarri oso garrantzitsua izanda.

Lloyd eta Karlan (1984)-ek komunikaziorako ordezeko sistemak hurrengo eran sailkatu zituzten:

a) Laguntzarik gabeko sistemak: hauek, batez ere, keinuetan oinarritzen dira, eta ez dituzte behar ez laguntzarik ez euskarri fisikorik, hau da, komunikazioa egoteko instrumenturen edo laguntza teknikoren beharrik ez daukate, baizik eta mimikaren, keinuen edo esku-zeinuen beharra daukate.

- Erabilera arrunteko keinuak.
- Keinuzko kodeak ez linguistikoak.
- Zeinu-hizkuntza.
- Zeinu-sistema.
- Keinuzko hizkera kodifikatuak.

b) Lagundutako sistemak: hauek, batez ere, grafikoetan oinarritzen dira, hau da, komunikazioa egoteko laguntzaren bat edo oinarri fisikoren beharra daukate, hala nola, argazkiak, marrazkiak, piktogramak, hitzak edo hizkiak.

- Elementu oso esanguratsuetan oinarrituriko sistemak (SPC, PIC).
- Sinbolo piktografikoak, ideografikoak eta abstraktuak nahasten dituen sistemak (BLISS).
- Esperientzia antropoideetan oinarrituriko sistemak (DMS).
- Laguntzarekin kodifikaturiko hizkuntza (BRAILLE).

3. METODOLOGIA

Autismoari zuzendutako materialen egokitzapena egiteko, alde zuzenetik autismoa zer den eta zeintzuk diren ezaugarriak jakitea ezinbestekoa da. Ondoren, autismoa daukan haurra hobeto ulertuko da eta emango zaion erantzuna askoz zuzenagoa izango da. Honekin batera, egokituko den materiala, erantzuna askoz esanguratsua izateko, komunikaziorako ordezkari sistemak barruan zein aukeratu den eta testua idazteko zein ezaugarri izan behar dituen kontuan izan behar da.

Kasu honetan, haur hezkuntzako irakaslea izateko ikasten ari naizenez, nik asmatutako ipuin baten egokitzapena egingo dut. Ipuina aukeratu dut haur hezkuntzan garrantzia handia daukalako umeengan. Ipuina tresna didaktiko bat da, zeina umeengan

kompetentzia komunikatiboak, argumentatiboak eta interpretatiboak garatzea baimentzen duen. Dena den, kontuan izan behar da autismoa daukan haur batek, ipuina hobeto ulertzeko hitzak irudiekin lagunduta egon behar direla.

3.1. Egokitzapenaren garrantzia.

- Autismoa daukaten pertsonak beste pertsonak bezalakoak dira. Gauza asko egiteko gai dira behar duten laguntza egokia izanda.
- Autismoa daukaten pertsonentzat gauza berriak ulertzea eta ikastea oso zaila izan dateke. Horregatik, informazioa oso argia eta ulertzeko erresa izatea ezinbestekoa da.
- Gainontzeko pertsonak bezala, autismoa daukaten pertsonak informazio ona izateko eskubidea daukate. Informazio ona izatea, pertsonen jakin behar dutena aurkitzen laguntzen die. Haien erabakiak eta aukerak hartzen laguntzen die.
- Autismoa daukaten pertsonak informazio ona ez badute jasotzen, ez dira kontuan hartuko. Ezin izango dute parte hartu haien inguruan gertatzen diren gauzetan.

Beste pertsona batzuk haiengatik aukeratzeraz eta erabakitzeraz ohitu beharko dira.

3.2. Komunikaziorako ordezkoko sistema egokiaren aukeraketa.

Ikusi den moduan, komunikaziorako ordezkoko sistema ugari daude, baina nik SPC-an oinarrituko naiz. *Temas para la educación* aldizkariaren arabera, SPC-a, komunikaziorako sinbolo piktografikoak, komunikaziorako ordezkoko sistema bat da zeina sinbolo piktografikoetan oinarritzen den, eta sistema bokala ez duten pertsonen komunikazioa errazten die.

3.2.1. Zergatik SPC-a?

- Egunerokotasunean erabiltzen diren kontzeptu eta hitz arruntak erabiltzen direlako.
- Diseinuen erraztasuna ulermena errazten duelako.

- Unibertsaltasuna erabiltzen delako.
- Sinboloen arteko bereizketa erraza sustatzen delako.

3.2.2. SPC-aren ezaugarriak.

- Marrazkiak errazak izan behar dira, eskematikoak, baina errealitatearekin bat etorrita.
- Marrazkiak adierazi nahi duena idatzi, marrazkiaren beheko edo goiko aldean.
- Hitz batzuen marrazkiak ez daude sorturik oso abstraktuak direlako.
- Hauen tamaina 2,5cm-koa, 5 cm-koa edo 8 cm-koa izan daiteke.
- Hiztegia 6 mailatan banatzen da: pertsonak (pertsona-izenordainak barne), aditzak, deskribatzaileak (adjektiboak eta adberbioak), izenak (beste mailatan sarturik ez daudenak), nahas-mahasak (artikuluak, konjuntzioak, preposizioak, denboraren kontzeptuak, koloreak, alfabetoa, zenbakiak eta abstraktuak diren beste hitz batzuk) eta sozialak (barkapenak, gustukoa duzun a la ez, ...).
- Maila bakoitzak kolore bat dauka: pertsona (horia), aditzak (berdea), deskribatzaileak (urdina), izenak (laranja), nahas-mahasak (zuria) eta sozialak (arrosa edo morea).
- Koloreen sistemari dagokionez, edozein sistema erabili daiteke baliogarria/onuragarria bada haurrarentzat.

3.3. Testua idaztean jarraitu behar diren aholkuak.

Lectura fácil gidetan agertzen den moduan, ulermena eta irakurketa errazteko, hainbat ezaugarri hartu behar dira kontuan:

- Testuaren konposaketa
 - a) Karaktereak:

- Gero eta handiago izanda hobeto. Arial 14 puntukoa izatea gomendatzen da.
- Bi eratako letra baino gehiago ezin da erabili, gehienez bat izenburuentzako eta beste bat testurako.
- Letra lodia eta kurtsiba erabili daiteke soilik zerbait nabarmendu nahi denean.
- Irakurtzeko letra larria xehea baino zailagoa da, beraz, askoz hobeto letra xehea erabiltzea.
- Fondoaren kolorearen arabera, karateentzat erabili behar den kolorea irakurketa ahalbidetu behar du.

b) Testuaren konposaketa:

- Lerro bakoitzak ezin ditu izan 60 karaktere baino gehiago.
- Testua ezkerreko marjinan lerrokaturik egon behar da, eta ez eskuinaldeko alboan justifikatuta.
- Konposizioa horizontala izan behar da bertikala baino.
- Irudi baten gainean letrarik ezin da jarri.
- Oso garrantzitsua da fondoaren eta karaktereen arteko kontrastea egotea.

c) Ilustrazioak:

- Argazki bat fondo bezala ezin da erabili.
- Ilustrazioak ondo enfokatuak egon behar dira.
- Argazkiak erabiltzen badira, testutik at jarri behar dira, hau da, argazkia eta letra ezin dira nahastu.
- Ilustrazioak errazak izan behar dira, detaile gutxirekin, trazu errazak eta lodiekin.

- Testuaren idazkera

a) Hiztegia:

- Hizkuntza erraza eta zuzena erabili behar da.
- Terminoak era koherentean erabili behar dira.
- Beste hizkuntzan dauden hitzak erabiltzea ekidin behar da, eta erabiltzekotan hitz horien azalpenak jarri beharko dira.

b) Gramatika:

- Korrekzio gramatikala testuaren ulermena errazten du.

c) Estiloa:

- Hitz arruntak eta esaldi motzak erabili behar dira.
- Enuntziatu positiboak negatiboak baino hobeak dira.
- Metaforen eta kontzeptu abstraktuen erabilera ekiditea hoberena da.
- Gauza bat deskribatzeko erabiltzen den hitza, testu guztian zehar hitz berbera erabili behar da gauza berbererako

d) Egitura:

- Egitura argia eta logikoa erabili behar da.
- Beharrezkoak ez diren ideiak, hitzak, esaldiak edo perpausak ezin dira idatzi.
- Esaldi bakoitzeko ideia bat egotea egokiena da.

e) Puntuazioa:

- Puntuazio sistema sinplea erabili behar da.
- Komak esaldiak luzatzen ditu, eta horrek esaldiaren ulermena ekiditen du.

Hau guztia argi izanda, egin dudan lehenengo gauza ipuinaren istorioa asmatzea izan da. Istorioa asmatzeko *lectura fácil* gidetan agertzen diren aholkuak kontuan hartu

ditut. Alde batetik, testuaren idazkeraren zatian agertzen diren puntuak, hala nola, hiztegia, gramatika, estiloa, egitura eta puntuazioa. Puntu hauek, istorioa ulerkorragoa izateko balio dute, hau da, ulermena errazteko.

Beste alde batetik, istorioa behin argi izanda, ordenagailuz idazteko momentua heldu da. Honetarako *lectura fácil* gidetan agertzen den beste puntu batean oinarritu nahiz, hain zuzen, testuaren konposaketan. Zati honetan hainbat gauza izan behar dira kontutan, hotz, karaktereak, testuaren konposaketa eta ilustrazioak. Kasu honetan, aholku hauek irakurketa errazteko balio dute.

Behin istorioa, testua eta ilustrazioak prest edukita, SPC-arekin egokitzeko beharrean nago. Lehenago azaldu dudan moduan, SPC-aren ezaugarri nagusia da hitzak sei mailatan banatzen dituela, maila bakoitzari kolore ezberdin bat jarritz. Eta honi gehitu behar zaio, hitz bakoitzari piktograma bat jarri behar zaiola, eta horretarako, ordenagailurako “AraWord” programa erabiltzea aukeratu dut. Programa hau, ordenagailurako programa bat da, zeina SPC sisteman oinarrituta dagoen, beraz, testua idazten duzun heinean, hitz bakoitzari dagokion marrazkia eta kolorea agertzen zaio.

Amaitzeko, alde batetik ilustrazioak izanda eta bestetik, testua piktogramekin, ipuina sortzeko eman beharreko azkeneko pausoa izan da testua ilustrazioekin elkartzeari, beti kontuan harturik, *lectura fácil* gidetan esaten den moduan, testua eta ilustrazioak ezin direla nahastu. Beraz, orrialde batean testua piktogramekin jarriko dut eta alboko orrialdean, testu horrek helarazi nahi duen ideiarekin bat datorren ilustrazioa, ulermena gehiago erraztearen helburuarekin.

4. EMAITZAK ETA ONDORIOAK

4.1. Emaitzak

Lan honen helbururik nagusia, autismoa daukaten haurrentzako ipuinak egokitzeko jarraitu behar diren baliabideak eta pausoak aztertzea eta hauek jarraituz ipuinaren egokitzapena sortzea da, beraz, pauso eta baliabide horiek jarraituz helburu hori lortzeko asmoz, nik asmatutako ipuin baten egokitzapena sortu dut. Ipuin hau da lan honetako lanaren garapena eta emaitza. Hau lortzeko, lehenago azaldu dudan moduan, hainbat aholku jarraitu behar izan ditut, alde batetik, komunikaziorako ordezkotako sistema baten aukeraketa, SPC-a kasu honetan. Eta bestetik, *lectura fácil* gidetan agertzen diren hainbat jarraibide.

Ipuina aztertzen bada ikus daiteke, alde batetik, SPC-aren ezaugarriak nola betetzen diren, hala nola:

- Piktograma bakoitzaren kolorea zehazturik dago dagokion mailaren kolorea errespetatuz.
- Hitz batzuen marrazkia ez dago hitz abstraktua delako .
- Marrazkiak errazak dira, eskematikoak, baina errealitatearekin bat etorrira.
- Marrazkiak adierazten dutena idatzita dago, kasu honetan, beheko aldean.
- Hitz batzuen marrazkiak ez daude sorturik oso abstraktuak direlako.

Bestetik, *lectura fácil* gidetan aztertutako aholkuak nola betetzen diren:

- Testuaren konposaketa

- a) Karaktereak:

- Arial 14 puntukoa erabili dut.
 - Letra bera erabili dut ipuin osoan zehar.
 - Letra xehea erabili dut testu osorako irakurmena errazteko.

- b) Testuaren konposaketa:

- Lerro bakoitzak 60 karaktere baino gutxiago dauka.
 - Testua ezkerreko marjinan lerrokaturik dago.
 - Konposizioa horizontala da.
 - Irudiak eta letrak bereizi ditut esaldiak orrialde batean jarriz eta irudiak bestean.
 - Fondoaren eta karaktereen arteko kontrastea sortu dut fondo zuria jarriz eta karaktereak beltzez.

- d) Ilustrazioak:

- Argazkiak ez ditut erabili fondo bezala baizik eta ulermena errazteko.

- Ilustrazioak ondo enfokatuak egoteko orrialde batean testutik bereizirik jarri ditut.
 - Argazkiak eta testua bereizi ditut, testua orrialde batean jarritz eta ilustrazioak alboko orrialdean.
 - Ilustrazioak errazak dira, detaile gutxirekin, trazu errazak eta lodiekin.
- Testuaren idazkera
 - a) Hiztegia:
 - Hizkuntza erraza eta zuzena erabili dut.
 - Terminoak era koherentean erabili behar ditut.
 - b) Gramatika:
 - Korrekzio gramatikala erabili dut testuan zehar ulermena errazteko asmoz.
 - c) Estiloa:
 - Hitz arruntak eta esaldi motzak erabili ditut ulergarriagoa suertatzeko.
 - Enuntziatu positiboak erabili ditut.
 - Metaforen eta kontzeptu abstraktuen erabilera ekidin ditut.
 - Gauza bat deskribatzeko erabiltzen den hitza, testu guztian zehar hitz berbera erabili dut gauza berbererako.
 - d) Egitura:
 - Egitura argia eta logikoa erabili dut.
 - Beharrezkoak ez diren ideiak, hitzak, esaldiak edo perpausak ez ditut idatzi.
 - Esaldi bakoitzeko ideia bat jarri dut.
 - e) Puntuazioa:

- Puntuazio sistema sinplea erabili dut.
- Komak gutxitan erabili ditut.

4.2. Ondorioak

- Egokitzapena nik asmatuiko ipuin batean egin dut, baina jadanik existitzen den ipuin baten egokitzapena egiteko, erabili ditudan jarraibide berberak erabili daitezke.
- Kasu honetan, nik sortutako ipuinaren egokitzapena orokorra da, hau da, Lorna Wing-ek azaldutako autismoaren ezaugarri orokorretan oinarritu naiz, *la triada de necesidades* deitu zuena. Baina horrek ez du esan nahi autismoa daukaten haur guztientzako baliogarria izan daitekeenik. Autismoa daukan haur bakoitza ezberdina da, beraz, haur zehatz bati egokitzapena egitean, haur horren beharrak, gaitasunak eta ezaugarriak kontuan hartu behar dira, beti Lorna Wing-ek azaldutako ezaugarri orokorrak kontuan harturik. Hau da, egokitzapen indibiduala egiteko, Lorna Wing-ek azaldutako ezaugarriak eta haur horrek dituenak kontuan hartu behar dira. Modu honetan, haur hori benetan ezagutuko da eta egokitzapena egingo zaio behar duen komunikaziorako ordezeko sistemarekin.
- Ipuin honen egokitzapena egiteko, komunikaziorako ordezeko sistemen artean, SPC-a aukeratu dut. Sistema hau aukeratzea erabaki nuen marrazkien sinpletasunagatik eta hitzak mailaka ezberdintzen direlako koloreak erabiliz, honela haurrentzat errazagoa da ezberdintzea oso bisuala delako. Baina argi izan behar da, edozein komunikaziorako ordezeko sistema aukeratzen denean, edozein materialaren egokitzapena egin aurretik, hurrekin aldeztu aurretiko lana egin behar da aukeratutako sistema ondo ezagutzeko, eta horrela, egokitzapenak onuragarriagoak izateko haurrentzat.
- Bai komunikaziorako ordezeko sistemen aukeraketa bai materialen egokitzapena, haur horren irakaslearen papera izango da, azken finean bera da gelan dagoena haur horrekin, eta bera da benetan ezagutzen duena. Behar duen laguntza eskatzeko aukera izango du, baina azken finean haurra bere gelan inkluituta egotea nahi badu, berak egin beharko ditu haur horrek behar izango dituen

materialen egokitzapenak klaseko gainontzeko hurrekin elkar lanean egon ahal izateko asmoarekin. Materialen egokitzapenak egitea oso garrantzitsua da, baina benetan haur hori gelan inkluitzeko, gela osoa egokitu beharko litzateke haur horren beharrei. Modu honetan, umea askoz autonomoagoa izatea lortuko du eta haien ikaskideengandik onartua izango da.

- Azkenik, esan beharra dago, gaur egun autismoa nahiko ezezaguna dela, nahaste ugari sortzen ari ditu bere esanahia eta jatorria dela eta, argitaratze eta ikerketa berriak egon arren. Eta honek, batzuetan oztopatzen du haurrak erantzun egokia jasotzeko aukera izatea.

Lanarekin bukatzeko, niri asko gustatzen zaidan esaldi batekin ustea erabaki dut zuen buruekin hausnar dezazuen:

“Horma, esaten zuen, ez dago gure aurrean, baizik eta gure baitan; hori da kolpatu behar dugun tokia” (Jabés).

5. BIBLIOGRAFIA

Ainscow, M. (2001). *Desarrollo de escuelas inclusivas*. Madrid: Narcea.

Arnaiz Sánchez, P. (1996). *Las escuelas son para todos*. Murcia: Siglo Cero

Arnaiz Sánchez, P. (1997). *Integración, segregación, inclusión*. Murcia: Universidad de Murcia.

Arnaiz Sánchez, P. (2000). *La diversidad como valor educativo*. Valladolid: Grupo Editorial Universitario.

Arró, M.; Bel, M^a. C.; Cuartero, M.; Gutiérrez, M^a. D.; Peña, P. *El profesorado en la escuela inclusiva*. Castellón: Universitat Jaume I

Barrat, P.; Cassel, G.; Hayes, B.; Reader, T.; Whitaker, P. (2002). *El autismo, como ayudar a tu hijo*. Bizkaia: Estudios Gráficos ZURE, S.A.

Bohórquez, D. M.; Alonso, J. R.; Canal, R.; Martín, M^a. V.; García, P.; Guisuraga, Z.; Martínez, A.; Herráez, M. M.; Herráez, L. (2007). *Un niño con autismo en la familia*. Salamanca: Universidad de Salamanca.

Cuadrado, P; Valiente, S. (2005). *Niños con autismo y TGD. ¿Cómo puedo ayudarles?*. Madrid: Síntesis.

Escribano, L.; Tamarit, J. (1996). *Sistemas alternativos de comunicación para personas con discapacidad*. Madrid: Alianza.

Flecha García, J. R. (2004). *Comunidades de aprendizaje una manera de hacer escuela*. Valencia: Alboraya.

Frith, U. (1991). *Autismo. Hacia una explicación del enigma*. Madrid: Alianza

Fuentes, J.; Aizapurua, I.; Illera, A.; Charo, C.; Urquijo, C. (1992). *Autismo y necesidad educativas especiales*. Gasteiz: Publicaciones Gobierno Vasco.

García, O. (2012). *Lectura fácil: Métodos de redacción y evaluación*. Madrid: CEDD.

Holtz, K. D.; Ziegert, A. K.; Baker C. D. (2004). *Un viaje por la vida a través del autismo*. Arlington: OAR.

Hortal, C.; Bravo, A.; Mitjá, S.; Soler, J.M. (2011). *Alumnado con trastorno del espectro autista*. Barcelona: Graó.

Junta de Extremadura. (2007). *Guía para la atención educativa del alumnado con trastorno generalizado del desarrollo (autismo)*. Extremadura: Parejo.

Lloyd, L.; Karlan, G. (1984). *Non-speech communication symbols and systems: Where have we been and where are we going?* Journal of Mental Deficiency Research.

Maalouf, A. (2010). *El desajuste del mundo: cuando nuestras civilizaciones se agotan*. Madrid: Alianza.

McLaughlin, M. J. (2005). *Guía de educación inclusiva*. El Salvador: Ministerio de educación.

Pearpoint, J; Forest, M. (1999). *Aulas inclusivas*. Madrid: Narcea.

Pérez, J.M.; Llorente Comí, M.; González Navarro, A.; Ayuda Pascual, R.; Freire, S. (2011). *Los niños pequeños con autismo: Soluciones prácticas para problemas cotidianos*. Madrid: Equipo Deletrea.

Sarasa, M.; Darretxe, L.; Gaintza, Z. (2012). *Adimen urritasuna eta autismoa haur hezkuntzako gelan: aniztasunetik aberastasunera*. Bizkaia: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Sigman, M; Capps, L. (2000). *niños y niñas autistas*. Madrid: Ediciones Morata.

Stainback, W.; Stainback, S.; Moravec, J. (1999). *Un currículo para crear aulas inclusivas*. Madrid: Narcea.

Vazquez. C; Martinez, I. (2006). *Los trastornos generales del desarrollo. Una aproximación desde la práctica Vol. 1*. Andalucía: Forma animada S.L.L.

Vazquez. C; Martinez, I. (2006). *Los trastornos generales del desarrollo. Una aproximación desde la práctica Vol. 2*. Andalucía: Forma animada S.L.L.

Vazquez. C; Martinez, I. (2006). *Los trastornos generales del desarrollo. Una aproximación desde la práctica Vol. 3*. Andalucía: Forma animada S.L.L.

Ventoso, R. (1995) *Pictogramas una alternativa para comprender el mundo*. Badajoz: Equipo específico de TGD.

Wing, L. (1998). *El autismo en niños y adultos. Una guía para la familia*. Barcelona: Paidós.

Wing, L.; Everard, M.P. (1989). *Autismo infantil. Aspectos médicos y educativos*. Madrid: Santillana.

Sainz, A. *El autismo en la edad infantil los problemas de la comunicación*.

Instituto para el Desarrollo Curricular y la Formación del Profesorado: Gobierno Vasco.

Sainz, A. *Las necesidades educativas especiales en el segundo ciclo de educación infantil*. Instituto para el Desarrollo Curricular y la Formación del Profesorado: Gobierno Vasco.

Webgrafía

ARASAAC. *Portal Aragonés de la Comunicación Aumentativa y Alternativa*. 2014ko maiatzean hartura, hemendik: www.catedu.es/arasaac/

CRMF de Albacete. *Como elaborar textos de fácil lectura*. 2014ko maiatzean hartuta, hemendik: <http://www.crmfalbacete.org/recursosbajocoste/facillectura/>

FEAPS. Las reglas europeas para hacer información fácil de leer y aprender. 2014ko maiatzean hartuta, hemendik: http://www.feaps.org/ndex.php?option=com_docman&task=doc_download&gid=492&Itemid=198

FEAPS. *No escribas para nosotros sin nosotros*. 2014ko maiatzean hartuta, hemendik: http://www.feaps.org/archivo/centro-documental/doc_details/493-ino-escribas-para-nosotros-sin-nosotros.html?tmpl=component

Federación de Enseñanza de CCOO de Andalucía. (2010). *El sistema pictográfico de comunicación*. 2014ko maiatzean hartuta, hemendik: <http://ardilladigital.com/DOCUMENTOS/TECNOLOGIA%20EDUCATIVA/SAAC/LENGUAJES%20PICTOGRAFICOS/SPC/EI%20Sistema%20Pictografico%20de%20comunicacion%20-%20Temas%20Educacion%20-%20art.pdf>

FEVAS. *Guía de materiales para la inclusión educativa. Discapacidad intelectual y del desarrollo*. 2014ko maiatzean hartuta, hemendik: http://espectroautista.info/ficheros/publicaciones/guia-de-materiales-para-la-inclusion-educativa_discapacidad-intelectual-y-del-desarrollo_educacion-infantil.pdf




Hervas, A. *Autismo, espectro autista*. 2014ko maiatzean hartuta, hemendik: http://www.sepeap.org/wp-content/uploads/2014/02/Ps_inf_autismo_espectro_autista.pdf

6. ERANSKINAK

1. Eranskina: ipuina





Niko



eta





sei











eta








baina





ez





















orduan.










Orduan,	 Niko	 oso	 triste	 jartzen da,	 eta
 bakar bakarrik	 geratzen da	 asperturik.			






Egun



batean.




Nikoren



ikaskideek



patorako




orduan



saskibaloian




jolasten




ari zeuden.





Haietako



batek,



nahi



gabe




pilota



indar



handiarekin



saskira



bota zuen.




Orduan,

pilota



eskolatik



kanpo



atera zen.






Eta



eskola




ondoan



zegoen




zelai




batera



jauzi zen.






Baina




zelai




horretara



sartzeko



bide



bakarra,



eskolak




inguratzen zuen




hesian




zegoen




zulo




bat








zen.













Orduan,



berarengana



hurbildu ziren



eta



mesedez



eskatu zioten



zulotik



pasatzeko.



